

**Bakero ETBko
'Sikofonia'
saioan**

ETB1 • 22:30etan

Jose Mari Bakero futbolari ohia izango da *Sikofonia* saioko gonbidatua. Bakerok egun partiduen kontakizuna egiten du telebistan.

**gaurko filmak** ♦ Ane Muñoz**■ RAPIDO, CASEMONOS.**

Ginger Rogers aktore eta dantzari ahaztezinak William Marshall senarrarekin batera ekoitzitako abentura arina da, atsegina eta erraz ikustekoa. William Dieterle maisuak, kameraren atzetik, zuzen antolatu zituen planoak eta sekuentziak, bestelako lan nabarmenik lortu gabe. Rogers anderea da, noski, protagonista, Ray Milland izarraren alboan.

■ DRACULA.

Coppolaren film fantastiko garesti honek, estreinatu aurretik, ikusmin handia sortu zuen, asko eta asko hitz egin baitzen hari buruz, eta horrexegatik, hain zuzen, ez gintuen ez harritu, ez ustekabea harrapatu, aretoetara iritsi zenean. Agindutakoa betetzen baitu, eta espero genuena eskaini. Istoria ederki eratua dago, narrazioa bitxia da, eta eszenaratzea kurioa. Aktore talde bikain batek antzeztu izanak ere erakargarriagoa egiten du filma. Jantzi ederrak, orrazkera eta makillajeak, diru eta baliabide askorekin eraikitako dekoratuak eta soinu banda landua, esate baterako, oso lagungarriak zaizkio azken emaitzari. Wynona Ryder eta Gary Oldman beldurgarria —Tom Waits abeslari handia tartean— dira zeluloide puska odoltsu aluzinagarri honetako izarrak *Dracula* honetan.

■ EN EL NOMBRE DEL PADRE.

Jim Sheridan irlandarraren lanik ederrena da. Daniel Day-Lewis, Emma Thompson eta Pete Postlethwaite (*Tocando el viento*) modakoez antzezten dituzte rol nagusiak, aktore talde bikaina osatuz. Salaketa modura planteatutako drama politikoa eta sozial gogorra da, oso interesgarria. Ipar Irlandako gazte batzuen bizitza erabat aldatuko da poliziaren eta justiziaren hankasartze gogor



ARTXIBOKA

Randy Quaid, *Vaya par de idiotas* komedian.**Farrellitarrak, bikote
zozoa baina jatorra**

■ **VAYA PAR DE IDIOTAS.** Farrelli anaia eroek elkarrekin egindako lehen film luzea are eroagoa da. Woody Harrelson (*Asesinos natos*) eta Randy Quaid ezagunek protagonizatutako komedia basatia da. Nahikoa entretenigarria da, zuzendari horien *There's Something About Mary* arrakastatsuen mailara iristen ez bada ere. Dena den, Farrellitarrak Estatu Batuetako zinemagintza independentean txoko bat aurkitu dute jadanik, eta handik kanpo ere jarraitzaile ugari lortu dute, astakeriaz jositako film ausart horiekin. Peter Farrellek aurretik zuzendutako *Dos tontos muy tontos* komertzialaren tankerakoa da; anaiak gidoia idazten lagundu zion orduko hartan. Bill Murray aktorea, komedietan aditua, bigarren mailako rolean azaltzen da.

Asesinato en la universidad	♦♦
1989, Christian Nibby	10:25 A3
La historia de RoseMary Clooney	♦♦
1982, Jackie Cooper	10:35 ETB2
El misterio de la joya	♦♦
1991, Terry Marcel	11:00 La2
La desaparición de Vonnie	♦♦
1994, Graeme Campbell	16:00 T5
Scream	♦♦
1996, Wes Craven	20:40 C+(f)
Neuf mois aussi	♦♦
1995, Chris Columbus	20:55 F3
Vaya par de idiotas	♦♦♦♦
P.Farrelly, B.Fanaro	22:00 ETB2
En nombre del padre	♦♦♦♦
1993, Jim Sheridan	22:00 TVE1
Dracula	♦♦♦♦
1992, Francis Ford Coppola	23:00 F2

2000 maniaques	♦♦♦♦
1964, Hershell Gordon	23:20 C+(f)
Blackout	♦♦♦♦
1985, Douglas Hickox	23:20 C+(f)
Viento de otoño	♦♦
1985, Charles B.Pierce	00:10 ETB2
Camino del sur	♦♦
1978, Jack Nicholson	01:55 A3
Harvard, movida americana	♦♦♦♦
1986, Steve Miner	02:15 La2
Que cosas tiene el amor	♦
1970, Germán Llorente	04:15 T5
Rápido, casémonos	♦♦♦♦
1964, William Dieterle	02:45 La2
Mi guerra mundial	♦♦
1988, Jenny Bowen	04:25 La2
♦ ♦♦ ♦♦ ♦♦♦♦ ♦♦♦♦♦	
TXARRA	ESKASA
BALEKOA	ONA
BIKAINA	

baten ondorioz kartzelatzen dituztenean. Sheridan irlandarrak, ikuspuntu errealista zenbait unetan efektismo exagera-

tuarekin estaltzen badu ere, oro har oso eszena tragiko sinesgarriak filmatu ditu lan honetan.

ETB 1

- 06:40: Bertatik Bertara.
- 07:20: Superbat. Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Superheroiak', 'Mamu harrapakariak', 'Rebot', 'Pottokiak', 'Martitzeko motosaguak', 'Sable zalduna eta izarretako sheriffak'.
- 09:40: Axut. Lehiaketa.
- 10:05: Goenkale. Telesaila. Errepikapena.
- 10:45: Euskal Herritik.
- 11:15: Ikusgela.
- 12:15: Bertatik Bertara.
- 12:55: Iparraldearen orena.
- 13:05: Tom eta Jerry. Marrazki bizidunak.
- 13:30: Gaur egun. Albistegia.
- 14:20: Goenkale.
- 14:55: XXI.mendeko arka. Dokumentala.
- 16:00: Hamaika korapilo.
- 17:45: Superbat. Ikusgela, 'Candy, Candy', 'Ninja Dortokak'.
- 19:05: Supernet.
- 19:20: Euskaraokea.
- 19:45: Superrak.
- 20:00: Gaur egun. Albistegia.
- 20:55: ETB kirolak.
- 21:05: Bertatik Bertara.
- 21:45: Goenkale.
- 22:30: Sikofonia. Gonbidatua: Jose Mari Bakero.
- 23:30: Algara.
- 00:30: Bakarrik.
- 02:00: Baratze basatia.
- 02:50: Axut.
- 03:20: Nire bi aitak.
- 03:45: Hamaika korapilo.
- 05:30: Ikusgela.
- 06:25: Bizi giroak.

ETB 2

- 07:50: Empresa vasca.
- 08:25: Del pais de los vascos. Dokumentala.
- 08:55: Adderly.
- 09:40: Mis dos padres.
- 10:05: Forum.
- 10:35: Zinema.
- La historia de RoseMary Clooney.**
Zuzendaria: Jackie Cooper. Aktoreak: Sondra Locke, Tony Orlando. 1982.
- 12:10: A mediodía.
- 12:30: La cocina de Pedro Subijana.
- 12:45: El comisionado.
- 13:35: La botica de la abuela.
- 14:00: Información territorial. Albistegia.
- 14:28: Teleberri.
- 15:20: ETB kirolak.
- 15:50: Lo que faltaba.
- 18:20: Matt Waters.
- 19:10: Pacific Blue.
- 20:05: Todo o nada.
- 20:58: Teleberri.
- 22:00: Zinema.
- Vaya par de idiotas.**
Zuzendaria: Peter Farrelly, Bobby Fanaro. Aktoreak: Randy Quaid, Woody Harrelson.
- 00:10: Zinema.
- Viento de otoño.**
Zuzendaria: Charles B. Pierce. Aktoreak: Jack Elan, Jeanette Nolan. 1985.
- 02:00: Ruth Rendell. Telesaila.
- 02:50: Lo que faltaba.
- 05:10: Forum. Errepikapena.
- 05:40: Amaiera.

**irratia** ♦

Euskadi Irratia. Goizean Behin goizeko magazinaren barruan, tertulia ekonomikoa izango dute Karmelo Urdangarin, Joseba Garmendia, Joseba Barandiaran eta Eduardo Malagonekin, 08:45etatik aurrera. Hiru ordu laurden geroago, Martin Ibarbiari egingo diote eguneko galdera: «Gaur zer ibiliko duzu buruan?». 10:00etan, Jakob Errekondok asteroko bisita egingo du, landareen inguruko guztiak kontatzeko asmotan. 10:30etan, heriotza zigorrak hitz

egingo dute Amnesty Internationaleko kide batekin. Ordu laurden geroago, *Kontaiguzu* zuk lehiaketa hasiko da, eta, 11:00etako albistegiaren ostean, Andoni Egañaren esaldiaren eta esanaren txanda izango da. 11:15etan, Euskal Aktoreen Batasunak ematen dituen sarien irabazle zenbaitekin hitz egingo dute. 11:25ean, bestalde, Gaztea Sarien berri emango du Joxeina Etxeberrria Euskadi Gaztea irratiko esatariak, gaur gauean banatuko baitituzte.

Arrate Irratia. Ohi bezala, 09:00etan Mutrikutik meza emango dute zuzenean. 11:15etan, berriz, Elgoibarko azokako berriak emango dituzte, eta, horren ondoren, elkarrizketen tartea izango da. Eguerdian, 12:20an, Zaldibar, Elgoibar eta Tolosako kronikak eskainiko dituzte. Iluntzean, 20:00etan, *Euskal Giroan* saioa hasiko da, eta, euskal musikaz eta herri kiroletako albisteez gainera, *Berriketan* tartean Txomin Garmendia izango da.